

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

## ARABAKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

**Eratzea Arabako Hauteskunde Batzordea, 2023ko maiatzaren 28an egingo diren toki hauteskundeetarako eta Batzar Nagusietako hauteskundeetarako**

## EDIKTUA

Bat etorri Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Legearen 14.3 artikuluan xedatutakoarekin, honen bidez, jakinarazten da toki hauteskundeetarako deia egin zitzaiela Ceuta eta Melillako batzarrei, apirilaren 3ko 207/2023 Errege Dekretuaren bidez (2023ko BOE, 80. zk.), eta Batzar Nagusiei, diputatu nagusiaren 76/2023 Foru Dekretuaren bidez (2023ko ALHAO, 40. zk.), eta Arabako Hauteskunde Batzordea osatzen duten kideen zerrenda jakinarazten da, guztiek jakin dezaten.

Lehendakaria: Ana Jesús Zulueta Álvarez andrea, Arabako Probintzia Auzitegiko Bigarren Ataleko magistratua.

Bokal judizialak: Francisco García Romo jauna eta Elena Cabero Montero andrea, Arabako Probintzia Auzitegiko Bigarren Ataleko magistratuak.

Idazkaria: Juan Luis Sanchón Martínez jauna, Arabako Probintzia Auzitegiko Lehen Ataleko Justizia Administrazioiko letradua.

Hautesle Erroldaren Bulegoko ordezkaria: M<sup>º</sup> Paz Rojo Porras.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 7a

*Batzordeko idazkaria*  
**JUAN LUIS SANCHÓN MARTÍNEZ**